



enbora-pasa

2. Zenbakiak margotu

Zenbakiak zehaztutako kolorean margotzen baduzu, inarak zein musika tresna jotzen duen jakingo duzu.



1. gorria 2. horia 3. laranja 4. orlegia 5. urdina



ARIES

MARTXOAK 21 - APIRILAK 20

Amodioa: Ezin duzu kendu burutik. Maitemindua zaude.
Paga: Aurrezten hasi; bestela, ez duzu izango oparia erosteko.
Osasuna: Kirola egiteko ere, eguraldi ederra egiten du.
Ikasketak: Ingelesak buruko min handiegia ematen dizu.



TAURUS

APIRILAK 21 - MAIATZAK 20

Amodioa: Inon ez duzu aurkituko horrelako bikoterik.
Paga: Ez dagoen lekutik ezin txanponik ateratu.
Osasuna: Gehiago deskantsatu beharko zenuke.
Ikasketak: Irakaslearekin amesgaiztoak izaten al dituzu?



GEMINI

MAIATZAK 21 - EKAINAK 20

Amodioa: Egin kasu bihotzari eta uxatu urduritasunak.
Paga: Orain aurrezten baduzu, gero dirua izango duzu.
Osasuna: Masajistari bisitatu bat egin beharko diozu.
Ikasketak: Gehiegi lan egitea ere ez da ona. Atsedan hartu!



CANCER

EKAINAK 21 - UZTAILAK 20

Amodioa: Animo, gauzak laster aldatuko dira eta.
Paga: Aberatsen pare zabiltza azkenaldi honetan.
Osasuna: Eztarriko mina duzula? Hartu esnea eztiarekin.
Ikasketak: Txukunago idazten saiatu beharko duzu.



LEO

UZTAILAK 21 - ABUZTUAK 23

Amodioa: Ez kexatu zerbait zaharragoa delako.
Paga: Hau eta beste nahi duzula? Dirurik gabe ezin erosi.
Osasuna: Ondo sendatu arte ez zaitez irten kalera.
Ikasketak: Klasera ez joateko beti duzu aitzakiaren bat.



VIRGO

ABUZTUAK 24 - IRAILAK 23

Amodioa: Ezer esan aurretik, ongi pentsatu.
Paga: Aspaldiko partez diru dezente duzu patrikan.
Osasuna: Hortzak hobeto zaintzen hasi beharko duzu.
Ikasketak: Egunero zerbait ikasten omen da.



LIBRA

IRAILAK 24 - URRIAK 23

Amodioa: Jaiak ligatzeko aukera bikainak dira.
Paga: Igartzen da poltsikoetan aspaldian ez zarela irten.
Osasuna: Eguzki izpiekin kontuz ibili eta eman krema.
Ikasketak: Ez urduri jarri, dena gaudituko duzu eta.



SCORPIUS

URRIAK 24 - AZAROAK 23

Amodioa: Aukera onak aprobetxatzen ikasi behar duzu.
Paga: Laster iritsiko dira garai hobeak. Eutsi goiari!
Osasuna: Beti haragia jatea ez da ona; jan arrain gehiago.
Ikasketak: Oporrak ongi mereziak dituzu.



SAGITARIUS

AZAROAK 24 - ABENDUAK 23

Amodioa: Egun hauetako batean etxera lagundu iezaiozu.
Paga: Ez kexatu horrenbeste, gutxiago duenik ere bada eta.
Osasuna: Barre egitea oso ona da osasunerako.
Ikasketak: Noiz irakurri zenuen azken liburua?



CAPRICORNIUS

ABENDUAK 24 - URTARRILAK 20

Amodioa: Opari ederren bat egin beharko diozu.
Paga: Dirurik ez baduzu, itsulapikotik hartu.
Osasuna: Betaurrekoak janzteko dira, ez kaxan edukitzeko.
Ikasketak: Komikiez gain, libururen bat irakurtzea ere.



AQUARIUS

URTARRILAK 21 - OTSAILAK 18

Amodioa: Harengatik edozer egiteko gai izango zinateke?
Paga: Beti diru eske zabiltza. Ez kexatu horrenbeste.
Osasuna: Osasuntsu egotea bezalakorik ez dago.
Ikasketak: Nork asmatu zuen telefonoa?



PISCIS

OTSAILAK 19 - MARTXOAK 20

Amodioa: Hark inork baino gehiago maite zaitu.
Paga: Garai gogorak datoz; hasi aurrezten.
Osasuna: Ongi gosaltzea garrantzitsua da.
Ikasketak: Gogotik ari zara lanean. Segi horrela!

